

Euskadiko nekazaritza-ustiategien titulartasunaren forma juridikoak



HAZI Fundazioarentzat
egindako txostena

Egilea **Nerea Larrea Aldama**
Abokatu kolegiatu zk.4461 ICAS-Bilbao



araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

AURKIBIDEA

1. SARRERA. _____	05
2. AURREKARIAK. _____	09
3. HAUTATZEN DEN TITULARTASUN-FORMAK UNEAN UNEKO INGURUABARRETARA EGOKITU BEHAR DU. TITULARTASUN-FORMA ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK. _____	15
4. NORTASUN FISIKOA ETA NORTASUN JURIDIKOA. _____	19
5. NEKAZARITZA-USTIATEGI TXIKIEN ETA ERTAINEN TITULARTASUN FISIKOAREN EDO ELKARTZE BIDEZKO TITULARTASUNAREN LEGEZKO FIGURAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK. _____	23
Banakako titulartasuna	25
Titulartasun partekatuko erakundea	31
Ondasun-erkidegoa	37
Sozietate Zibila	43
ENS	49
Kooperatiba-sozietate txikia	55
Erantzukizun mugatuko lan-sozietatea	61
Laburpena	67
6. TITULARTASUN PARTEKATUKO NEKAZARITZA-ERAKUNDEAREN FIGURAREN AZTERKETA ETA HORREN KONPARAZIO-ABANTAILAK. ____	71
7. ONDORIOAK. _____	79

01

Sarrera

Emakumeek nekazaritza-jarduerari egin dioten ekarpena ezkutatu egin da historikoki eta ez zaio eman merezi duen aintzatespen sozial, ekonomiko eta politikoa. Emakumeek lana, ezagutza, talentua eta laguntza orokorra eman diete nekazaritza-ustiategiei.

Nekazaritza-ustiategi familiarrak izanik, jarduera ekonomiko bera lanbide- eta lan-arloko zerbitzu-prestaziotzat hartu izan da gizonen kasuan, eta, kasu horretan, ordaindu egin da eta prestazio sozialak sortu ditu, hala nola erretiro-pentsioa. Alabaina, emakumeen kasuan, ustiategiaren titular den gizonaren errenta nagusia osatzen duen «familia-laguntza» gisa hartu izan da gizartean.

Sistema horrek, nekazaritza-ustiategi familiar askotan agertzen denak, ezkutuko

ekonomiara zokoratu ditu emakumeak, eta, horrek emakume horien jarduera ekonomikoa halakotzat onartzea eragotzi du, baita emakumeek pentsioak lortzea eta erabakiak hartzeko nekazaritza-organoetan parte hartzea ere. Erakundeetan parte hartzeko aukerarik ez izateak esan nahi du ezin dutela eraginik izan erakundeek hartzen dituzten erabakietan; beraz, emakumeek landa-ingurunean ikusten dituzten premiak ez dira kontuan hartzen: prestazio publikoak eta pentsioak, segurtasuna, arriskuen prebentzioa, hazkuntza, zaintzak, prestakuntza, zerbitzuak, eta abar.

Horregatik, sozialki bidegabea eta baztertzaila ez ezik, emakumeen interes ekonomiko eta sozialetarako kaltegarria ere baden egoera hori ez betikotzeko, genero-berdintasunaren printzipioa bultzatzen duten arau batzuen helburua da emakume nekazariak nekazaritza-ustiategien titulartasuna —banakakoa, partekatua edo elkartze bidezkoa— eskura dezaten sustatzea.

Emakume nekazariak mota bateko edo besteko titulartasuna lortzea edo horietatik kanpo geratzea baldintzatzen duten abantailak eta eragozpenak aztertu ahal izateko, nekazaritza-jarduerako enpresa txiki eta ertainetako ohiko titulartasun-formei buruzko txosten hau aurkezten dugu, bereziki aintzat hartuta titulartasun partekatuko erakundeak.





Aurrekariak

Nekazaritza-jardueraren alorrean egindako genero-diagnostikoak erakusten du emakumeak azpiordezkatuta daudela, bai ondasunen jabetzari dagokionez, bai ustiapenen titulartasunari dagokionez, sektorea arautzen duten arauen hitzaurrean azaltzen denaren arabera. Arau ugari saiatzen dira, Europako legeriari ja-

rraikiz, emakumeei titulartasunaren atea irekitzen. Beraz, arau multzo hori guztia diskriminazioaren aurkako zuzenbidean sartzen da, eta horrek egintza publiko positiborako proposamenak dakartza, egoera genero-berdintasunerantz berronartzeko titulartasunaren alorrean ere.

Hona hemen arau horietako batzuk:

17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa

EAEko lege horrek honako helburu hauek zehazten ditu, besteak beste: «*Emakumeek nekazaritzan eta elikagaigintzan egiten dute lana aintzatestearen alde egitea, sektorean jarrai dezaten laguntzea, eta beren bidea baldintza berdinetan gara dezaten laguntzea; halaber, elkarte eta taldeetan sar daitezen bidea erraztea*».

Bere lehentasunezko jarduketan artean hau dago: «*ustiattegietako titularrak profesionalak eta nagusiki nekazaritzan dihardutenak izatea; bereziki, emakumeak eta gazteak titular izan daitezen bultzatuz*».

Lege horretako VI. tituluaren (Zeregin soziala eta prebentzioa) II. kapituluaren («EMAKUME NEKAZARIA») ezartzen denez, nekazaritza-arloko EAEko administrazioek oinarritzko printzipio hauek bete behar dituzte: tratu berdina emango zaie nekazari gizon edo emakumeei, emakumeen aldeko ekintza positiboan kalterik gabe; aukera-berdintasuna emango zaie eta genero-ikuspegia kontuan hartu beharko da. Eta, horregatik, EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUA sortzeko mandatua hartu zuen, gutxienez honako ekintza positibo hauek sar-tzeko: presakuntza-programak sorzea, emakume titularrentzako dirulaguntzak eta lagundutako finantzaketa lehe-nestea; kudeaketa-organoetan emakumeek ordezkari izatea; eta kontziliazio-politikak hobetzea.

Kapitulu horretan heltzen zaio titulartasunari gaiari; hala, 76. artikuluan titulartasun fisikoko ustiategiak titulartasun partekatuko ustiategi bihurtzeko mandatua ezartzen da: «*titulartasun fisikoko ustiategi erregistratu batean zuzenean eta pertsonalki bi ezkontideek egiten badute lan, edo izatezko bikoteko bi kideek... ustiategi horren titulartasunak titulartasun partekatua irudi juridikoa izango du*».

Baina, zoritxarrez, Legeak ez du ezartzen zer ondorio dituen mandatu hori ez betetzeak. Gainera, geroago esango dugunez, nekazaritza-ustiategiaren titulartasun partekatuari buruzko estatuko legeak honela definitzen du titulartasun partekatua (TP): «*borondatezko figura berri bat*». Aurrerago aztertuko dugu zer-nolako baliabideak dituzten eskura emakumeek beren bikotekideekin batera lantzen dituzten ustiategiaren titulartasuna eskatzeko.

17/2008 Legeak genero-ikuspegiko beste gai batzuei ekiten die, hala nola nekazaritzaren arloan lan-arriskuen prebentzioari dagokionez emakumeen eta gizonen osasunari buruz egon daitezkeen faktoreak aztertzeko premia edo gazteek eta emakumeek ustiategiaren titulartasuna lortzea sustatuko duten politika aktiboak bultzatzea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean (*Berdintasunari buruzko EAEko legean*) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduera gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen dira. Trafiko juridikoaren arloan berdintasuna exijituta bideratu dira printzipio horietako batzuk: hala nola erabakiak hartzeko eremu gutxietan ordezkari izatea, bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkari izan behar baitute pertsona anitzeko organoetan.

Berdintasunari buruzko Estatuko legeak —hots, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak**— heltzen dio titulartasunaren gaiari. Hala, honela dio Landa Garapenari buruzko 30. artikuluan:

«*Nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa izan dadin, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak titulartasun partekatuaen figura juridikoa garatuko dute, erabat aitortu daitezkeen emakumeek nekazaritza-sektorean dituzten eskubideak, Gizarte Segurantzaren dagokion babesa eta haien lanaren aintzatespena*».

Nekazaritza-ustiategiaren titulartasun partekatuari buruzko 35/2011 Legeak betetzen du Berdintasunari buruzko Legearen mandatu hori, gizonen esku dauden Estatuko ustiategiaren titulartasunen % 70etik gorako diagnostikotik abiatuta.

Ezkontide biek edo izatezko bikoteko kide biek partekatutako titulartasunaren figura horrek errealitate sozial hori berronkatu nahi du, titulartasun-eredu hori bideratuta; izan ere, Legeak adierazten duenez:

«*Nahiz eta ordenamendu juridikoan eta merkataritza-arlokoan aspalditik nahikoa sozietate-figura egon emakumeek gizonen eskubide berak izateko eta eskubide horiek merkaturatu eta trafiko juridikoan eta ekonomikoan baliatzeko, errealitate sozialak erakusten du nekazaritza-ustiategietan lan egiten duten emakumeak ez direla sozietate-figura horietaz baliatu*».

Nola laguntzen du titulartasun partekatuko erakundearen (TPE) figurak titulartasuna lortzen, emakumeek balia zitzaketen baina baliatu ez dituzten titulartasun-forma ugari dauden testuinguru batean? Eraketa erraztuz, eratzeko kosturik izan gabe eta dirulaguntzak eta laguntzak emanaz.

Hala ere, legeek berez ez dute beti lortzen eragozpen sozialak aldatzea, eta, titulartasun partekatuko erakundea borondatezko figura juridiko bat denez, ustiategiaren titular den gizona ezin da behartu titulartasuna aldatzera, hark nahi ez badu. Geroago ikusiko dugu zer faktorek adoregabatu ditzaketen titularrak (*adibidez, etekinak % 50ean banatzea*) eta zer gertatzen den titulartasuneko figura hori eratzen ez denean (*diru-ordaina ustiategia besterentzen bada edo bikotea banantzen bada*).

Emakume nekazarien estatutuari buruzko 8/2015 Legea.

EAEko lege horren II. tituluan nekazaritza-ustiategiaren titulartasunaren eta titulartasuna partekatuen gaiari heltzen zaio.

Emakumeek titulartasuna lortzea bultzatzeko duen gaitasun eraginkorra aztertzeke, legearen idazkera aztertu behar dugu. 10. artikulua, «*Titulartasuna lortzeko eskubidea*» izenekoak, gogorarazten du emakume nekazariak eskubidea dutela, gizon nekazarien baldintza berdinetan, titulartasuna lortzeko. Ez luke beharrezkoa izan behar begien bistakoa den gauza hau gogoratu behar izatea, baina, gogoratu behar denez, lagungarria izango litzateke honen inguruko legezko mandatu argi bat izatea eta lege horrek ondorio argiak izatea berau betetzen ez dutenentzat.

Hala ere, nahiz eta lege horrek honako hau esaten duen: «**emakume nekazari batek lana egiten duen ustiategiak legezko figura bati lotu beharko zaizkio, dela titulartasun fisikoa edo dela elkartze bidezko titulartasuna, eta haren bidez posible izan beharko da lortzea emakume nekazaria titular izateak, ikusarazteak eta ahalduzkoak dakartzan eskubideak....**», hola-halako mandatua da, ez baitu irmotasunez islatzen zer ondorio izango dituen berau ez betetzeak.

EAEko administrazioek «*bultzatuko dute emakumeek ustiategiaren erregistro-titulartasuna lortzea...*». Adierazpen hori aitzakiatzat hartuta, publikoki sustatu beharko lirateke figuraren hedapena, eta gogora ekarri pertsona bat alta eman gabe lanean edukitzea legea ez betetzea dela. Txosten honen ondorioetan aztertuko dugu zein izan daitezkeen arrazoiak figura hori ezezagun samarra izaten jarraitzeko.

Titulartasun partekatuen baldintzak (*11. artikulua*) eta titulartasun partekatuen araubidea (*12. artikulua*) 35/2011 Legean ezarritako berak dira, salbuespen honekin:

11. artikuluan adierazten denez, «*Estatutu honen ondorioetarako, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiategiak hauek dira: nekazaritza-ustiategia batera kudeatzeko, emakume baten eta ezkontidearen edo antzeko afektibotasun-harreman batez lotutako pertsonaren artean eratzen direnak*». Horrek ez du esan nahi kanpoan uzten direnik bi gizonen osatutako bikoteen kasuak; Estatuko legearekin alderatuta, Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan kokatzen da Legea; hala, emakumeak dira lege horren protagonistak; nolana ere, EAEko legea Estatukoarekin batera dago indarrean, eta haren artikulua behin baino gehiagotan lotzen zaizkio estatuko lege horri.

03

Hautatzen den titulartasun-formak
unean uneko inguruabarretara
egokitu behar du

Ustiategiaren titulartasunaren figura erabakitzeko, kontuan izan behar da emakumeak zer zirkunstantzia zehatzetan sartzen diren nekazaritza-jardueran. Titulartasun-formak «neurritza egindakoa» izan behar du, kasu eta une bakoitzean ahalik eta baldintza hoberenak emango dituena. Berez ez dago figura horberik edo okerragorik, baizik eta egoera bakoitzerako egokiagoak edo desegokiagoak direnak, eta, faktore guztiak kontuan hartuta, konparazio-abantaila handiagoak edo txikiagoak dituztenak.

Aukeran diren figuren ezaugarriak aztertu aurretik, imajina ditzagun abiapuntuak, horien arabera hautatuko baita figura bat ala beste bat:

- Adin ertaineko emakume baserritar bat, senarra titular den ustiategian betidanik lan egin duena, gizarte-segurantzian alta emanda egon gabe eta ordainsaririk jaso gabe.
- Nekazaritza-eskolako hiru emakume ikasle, hirigunean bizi direnak, nekazaritza ekologikoko proiektu bat dutenak eta lurrik ez dutenak jabetzan.
- Landa-lursail emankor bat jarauntsi duen emakume bat, langabezian dauden bi seme-alaba dituena.
- Gaztagintzaren zale amorratuak diren eta baliabide ekonomikorik ez duten bi lagun gazte (emakumeak), bizimodua sektore horretan ateratzeko apustua egin dutenak.
- Sei emakume etorkin, baliabide ekonomikorik ez dutenak, baina jornalero gisa esperientzia dutenak eta nekazaritza-ezagutzak dituztenak.

Zerrenda hau modu mugagabeaz luza genezake, baina ebidentzia bakar bat dago, eta zera da: 1. kasuko emakumeari titulartasun partekatuko erakundea interesatzen zaio. Gainerakoek, edo bururatzen zaigun beste edozeinek, ekintzaitzari ekin aurretik ohi-koak diren galderak egin beharko dituzte, honako hauek, alegia:


- Hasteko zer eskuratu behar dut?
Krediturik behar dut? Zenbat inbertitu dezaket?
- Kostu finkoak. Fiskalitatea.
- Arriskua eta erantzukizuna.
- Testuingurua: bideragarritasuna.
- Zenbat pertsona gara eta zer ekarpen egiten dugu?
- Etekin-itzaropenak.
- Kudeaketa eta administrazioa / burokrazia.

Edozein jarduera ekonomiko formalizatu aurreko hasierako galdera horien aurrean, aintzakotzat hartzekoa da, adibidez, kreditua lortzeko komenigarria dela egitura sendoago bat edukitzea (*kooperatiba bat edo sozietate bat edukitzea, banakako titulartasun bat edo ondasun-erkidego bat eduki ordez*). Hala ere, hasieran oso gutxi irabaziko dela aurreikusten bada, komeni da gastu gehiago ez zorduntzea egiturari (*kudeaketa- eta formalizazio-gastuak*); beraz, hobe da sozietate zibil batekin edo bakarka hastea.

Erantzukizuna eta fiskalitatea oinarritzko bi gai dira. Jarduera arriskutsua bada, komenigarria da berezko nortasuna duen forma juridiko bat sortzea, forma juridikoa

osatzen dutenetatik bereizita (*sozietate-titulartasunaren formak*), sozietateak erantzun dezan eta ez pertsona fisikoek. Irabazi handiak lortzeko itzaropena izanez gero ere komenigarria da bi forma horiek izatea, karga motengatik: komenigarria da sozietateen gaineko zergan tributatzea PFEZn tributatu ordez, azken hori karga progresiboa delako, irabazia zenbat eta handiagoa izan orduan eta gehiago ordaintzen baitu; sozietate-formek, aldiz, tasa (%) finko eta babestua dute.

Nolanahi ere, garrantzitsua da azpimarratzea jarduera baten bizialdian titulartasun-forma alda dezakegula unean uneko inguruabarretara egokitzeko.



Nortasun fisikoa eta nortasun juridikoa

Pertsona fisikoa

ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN TITULAR IZATEKO GAITASUNA
DUEN PERTSONA NATURALA EDO GIZAKI INDIBIDUALA DA.

Pertsona juridikoa

HELBURU KOLEKTIBOAK ETA IRAUNKORRAK BETETZEKO SORTUTAKO
ERAKUNDE BAT DA, ZEINARI ZUZENBIDEAK ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN
TITULAR IZATEKO GAITASUNA AITORTZEN DION
-BETIERE BALDINTZA BATZUK BETETZEN BADITU-.



Edozein jarduera ekonomiko egiteko —nekazaritza-jarduera, adibidez—, pertsona batek bere buruari galdetu beharko dio gizabanako gisa edo sozietate modura gauzatuko duen.

Individualki egiten badu, pertsona fisikoa den aldetik, bere ondasun guztiekin erantzungo die jardueraren arriskuei.

Beste pertsona batzuekin elkartuta egiten badu, pertsona juridiko bat eratu beharko du formalki (*sozietatea, kooperatiba eta abar*) eta pertsona horrek bere baliabideekin erantzungo die jardueraren arriskuei, baina horrek ez du eraginik izango pertsona fisiko elkartuen ondasun partikularretan. Kasu horretan, bere baliabideak, hasteko, sozietate-kideek pertsona juridikoa eratzeko egiten dituzten ekarpenak dira; beraz, ekarpen horietara mugatzen da sozietate-kideek beren gain hartzen duten arriskua; hots, hasierako ekarpen horretara gehi ondorengoetara, halakorik bada.

Hortaz, nortasun juridikoak sozietate-kideen ondare pertsonala babesteko pantaila bat ezartzen du, eta erakundeak bere **ERANTZUKIZUNA** hartzen du jardueraren arriskuen aurrean (*zorrak, hirugarrenei kalteak eragin dizkieten istripuen erantzukizuna eta abar*). Beraz, jardueraren **ARRISKUA** balioestea funtsezko faktorea da nortasun juridikoa duen edo ez duen titulartasun-forma bat aukeratzeko garaian.

Legeak baldintza zorrotz batzuk ezartzen ditu pertsona juridikoentzat, hala nola eratzeko prozesua garestiagoa izatea (*eskritura publikoa, merkataritza-erregistroa eta abar*) eta ondorengo kudeaketa-ahalegina ere handiagoa izatea (*kontabilitatea, kontu-gordailua, sozietateen gaineko zergan tributatzea eta abar*); izan ere, hirugarren pertsonekin tratatzeak betebeharrak dakartza pertsona horien segurtasuna bermatzeko.

→ Ustiategi txikien eremuan ohikoa izaten da eratzeko garaian titulartasun-forma simple eta merkeenetara jotzea, hala nola ondasun-erkidegoa, sozietate zibila eta titulartasun partekatuko erakundea. Nortasun juridikorik gabeko egiturak direnez (**Ikus Sozietate Zibilari buruzko Oharra***), jardueratik eratorritako erantzukizuna mugagabea da beren kideentzat.

Adibidez, TPE, OE edo SZaren forma duen ustiategi batean hirugarrenei kalteak eragiten dizkien istripu bat gertatzen bada, elkartuek beren ondare guztiarekin erantzungo diete kalte horiek eragiten dituzten erreklamazioei, baldin eta erakundearen baliabideak eta horren aseguruak kalte horiek estaltzeko nahikoa ez badira.

***Oharra:** Sozietate Zibilak nortasun juridikoa lor dezake eskritura publikoan eratzen bada bere buruari ondasun higiezinak edo eskubide errealak emateagatik.



Titulartasun fisikoaren edo sozietate-titulartasunaren legezko figurak

Honako hauek dira nekazaritza-ustiategi txiki eta ertainetako titulartasunaren figura ohikoenak:

- 1** BANAKAKO TITULARTASUNA
- 2** TITULARTASUN PARTEKATUKO ERAKUNDEA
- 3** ONDASUN-ERKIDEGOA
- 4** SOZIE TATE ZIBILA
- 5** ERALDAKETARAKO NEKAZARITZA-SOZIE TATEA
- 6** KOOPERATIBA
- 7** LAN-SOZIE TATEA

Jarraian, figura horien oinarritzko ezaugarriak azalduko ditugu, konparazio-taula bat egiteko, eskema berari jarraikiz.

Banakako titulartasuna

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

BANAKAKO TITULARTASUNA

Zer da banakako titulartasuna?

Norberaren konturako jarduera ekonomiko edo profesional bat egiteko banakako forma da. Gaur egun pertsona titularren erantzukizuna mugatzeko moduak dauden arren (*adibidez, pertsona bakarreko sozietateak*), eredurik ohikoena, autonomoaren figurari lotutakoa, azalduko dugu.

ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

- **Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan izena ematea**
- **Foru Ogasunaren erroldan izena ematea**
→ 036 eredu (erroldan alta ematea)
- **Gizarte Segurantzaren alta ematea**

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Nortasun juridikoa:** Ez.
- **Erantzukizuna:** mugagabea.
- **Administrazioa:** banakakoa.
- **Ordezkaritza:** banakakoa.
- **Kapitala / ekarpena:** ez dago legezko gutxienerokirik.
- **Irabazien banaketa:** irabaziaren % 100eko autoesleipena
- **Zuzeneko tributazioa:** PFEZ (errentak eratzikitzea).



Banakako titulartasuna



FISKALITATEA

1. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Kontsumoa zergapetzen du. Pertsona titularra BEZaren subjektu pasiboa da. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeko baldintzak betetzen badira, EZ ditu BEZaren aitortpenak aurkeztu behar; bestela, jasanarazitako eta jasandako BEZaren likidazioa aurkeztu beharko du (303 eta 300 ereduak).

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia: Salmentengatik ez dute BEZa jasanarazteko, likidatzeko eta sartzeko betebeharririk. Ezin dute eskurapenetan jasandako BEZa kendu, baina beren produktuak saltzen dituztenean oroharreko konpentsazioa lortzeko eskubidea dute. Erosten duenak egin behar dio ordainagiria bere nekazari hornitzaileari. Ordainagiri horretan BEZak eragindako oroharreko konpentsazioa sartzten da, baina ezin da kendu.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzea eta sartzea (*hala badagokio*) hiruhileko aitortpenaren bitartez (303 ereduak). Emaizta negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (390 ereduak).

2. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Banakako titulartasunean, pertsona titularrak ez du sozietateen gaineko zergan lortu duen irabaziarengatik tributatzeko, PFEZn lortutako irabaziarengatik baizik. PFEZ zerga edo karga progresiboa da; beraz, horrek esan nahi du zenbat eta handiagoa izan irabazia orduan eta handiagoa izango dela tributazioaren edo kuotaren ehuneko.

→ Arrazoi fiskal hori dela-eta, banakako titulartasuna ez da komenigarria eragiketen irabazia edo bolumena areagotzen den neurrian eta karga-tasak sozietateen gaineko zerga gaintitzen duen neurrian (tasa orokorra % 24, sozietate txikiak % 20 edo % 18)

Nekazaritza eta abeltzaintzarako zenbatespen erraztu berezia:

ETEKIN GARBIA = Diru-sarrerak — Gastu kengarriak — Aurreko diferentzia positiboaren % 35 = Aurretiko etekin garbia +— Jarduerari atxikitako ondare-elementuen galdu-irabazien saldo garbia.

Zuzeneko zenbatespen arrunta:

ETEKIN GARBIA = Urtean barrena lortutako diru-sarrerak — Diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak +— Ondare-aldakuntzak.

Hori guztia sozietateen gaineko zergaren arauen arabera; gainera, arauetara dagokienez Merkataritza Kodearekin bat datorren kontabilitatea eraman beharko da. Ez da erregistratzen.

3. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

140 ereduak, otsailean, jardueraren erregistro-liburua egindako fakturekin (*diru-sarrerak*) eta jasotako fakturekin (*gastuak*).

PFEZaren hiruhileko ordainketa zatikatuak (130 ereduak) eta PFEZaren urteko aitortpena esleitutako errentarekin.

NEKAZAR
USTIATE
TITULAR
PARTEKATUKO
ERAKUNDEA

Nekazaritza-ustiategiaren
titulartasun partekatuko
erakundea

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

Zer da titulartasun partekatuko erakunde bat?

Titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiapena nortasun juridikorik gabekoa den eta zerga ondorioetarako ezarri daitekeen unitate ekonomikoa da. Unitate hori senar-emazteek edo antzeko afektuzko harreman batez lotutako bikote batek osatua da, betiere nekazaritza-ustiapena batera kudeatzeko.

EAEko Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legearen ondorioetarako, nekazaritza-ustiategia batera kudeatzeko, emakume baten eta ezkontidearen edo antzeko afektu-harreman batez lotutako pertsonaren artean eratzen direnak hartuko dira titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiategitzat.

Baldintzak: bi titularkideak gizarte-segurantzian alta emanda egotea, nekazaritza-jardueran zuzenean eta pertsonalki lan egitea eta ustiategia kokatuta dagoen lurralde-eremu landatarrean bizitzea.

Emakume Nekazarien Estatutua genero-berdintasuneko arau bat da; beraz, bere xedapenak emakumeek titulartasuna lor dezaten sustatzera bideratzen dira; horrek ez du alde batera uzten bi gizonek eratutako TPE bat egotea, Estatuko arauarekin bat etorrira.



ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

- **Kontratu pribatua edo borondate-akordioa.**
- **Nekazaritza Ustiategien Erregistroan + Titulartasun Partekatuko Erregistroan (EAEn, berbera da) izena ematea. Izena ematean, TPEa eratzen da.**
- **Foru Ogasunaren erroldan izena ematea → 036 eredia (erroldan alta ematea). IFZ eskatzea.**
- **Titularkideek gizarte-segurantzian alta ematea.**

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Nortasun juridikoa:** Ez.
- **Erantzukizuna:** titularkideen zuzenekoa, pertsonala, solidarioa eta mugagabea.
- **Administrazioa:** bi titularkideen baterakoa
- **Ordezkaritza:** solidarioa, salbu eta ustiategia antolatzeko, besterentzeko edo kargatzeko egintzetan; halakoetan, mankomunatua izan beharko du.
- **Kapitala / ekarpena:** ez dago gutxienezkorik, ezta ekarpena egiteko betebeharririk ere.
- **Etekinen banaketa:** % 50ean
- **Zuzeneko tributazioa:** PFEZ (errentak eratzkitzea)
- **Konpentsazio ekonomikoa nekazaritza-ustiategian izandako benetako laguntzarengatik:** ustiategian lan egin dutenentzat, baldin eta lan egiteagatik ordainsaririk jaso ez badute eta TPEa formalizatu ez bada, ustiategia eskualdatzen bada edo ezkontideak edo izatezko bikotea banantzen bada (5 urte erreklamatzeko)

Nekazaritza-ustiategiaren titulartasun partekatuko erakundea

FISKALITATEA → ONURAK ERAKUNDE BABESTUAK EDO BEREZIKI BABESTUAK IZATEAGATIK

TPEak Babestutzat edo Bereziki Babestutzat hartzen dira fiskalki lurralde historiko bakoitzean TPEak arautzen dituzten foru-arauetan. TPEen trataera fiskalak onura fiskal batzuk dakartza, baita laguntzak lortzeko lehentasuna izatea ere.

4. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Kontsumoa zergapetzen du. TPEa BEZaren subjektu pasiboa da (*partaideak ez, orde*). Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeko baldintzak betetzen badira, EZ ditu BEZaren aitopanak aurkeztu behar; bestela, jasanarazitako eta jasandako BEZaren likidazioa aurkeztu beharko du (*303 eta 300 ereduak*).

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia: Salmentengatik ez dute BEZa jasanarazteko, likidatzeko eta sartzeko betebeharririk. Ezin dute eskurapenetan jasandako BEZa kendu, baina beren produktuak saltzen dituztenean oroharreko konpentsazioa lortzeko eskubidea dute. Erosten duenak egin behar dio ordainagiria bere nekazari hornitzaileari. Ordainagiri horretan BEZak eragindako oroharreko konpentsazioa sartzen da, baina ezin da kendu.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzea eta sartzea (*hala badagokio*) hiru hileko aitopenen bitartez (303 eredu). Emaizta negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (*390 eredu*).

5. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

TPEa zergapetu daitekeen erakunde bat da, eta ERRENTAK ERATXIKITZEKO ARAUBIDE BEREZIAREN pean tributatu behar du. TPEak ez du PFEZn tributatzen, ezta sozietateen gaineko zergan ere; partaideek gehitu behar dituzte beren PFEZ pertsonalaren aitopenean sozietate zibila ustiatzeagatik lortutako errentak.

Nekazaritza eta abeltzaintzarako zenbatespen erraztu berezia:

ETEKIN GARBIA (*ONURA*) = Diru-sarrerak — Gastu kengarriak — aurreko diferentzia positiboaren % 35 = Aurreko etekin garbia +— Jarduerari atxikitako ondare-elementuen galdu-irabazien saldo garbia.

Zuzeneko zenbatespen arrunta:

ETEKIN GARBIA = Urtean barrena lortutako diru-sarrerak — Diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak +— Ondare-aldakuntzak.

Hori guztia sozietateen gaineko zergaren arauen arabera; gainera, araei dagokienez Merkataritza Kodearekin bat datorren kontabilitatea eraman beharko da. Ez da erregistratzen.

6. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

184 eredu otsailean. Eredu horren bidez, honako hauek aitortzen dira: ekitaldi bakoitzeko partaideen identifikazio-datuak, lortutako errenten zenbatekoa (*diru-sarrerak — gastu kengarriak*), kenkarien oinarria, atxikipenen zenbatekoa eta jasandako konturako sarrerak eta negozio-zifren zenbateko garbia.

140 eredu, otsailean, jardueraren erregistro-liburua egindako fakturekin (*diru-sarrerak*) eta jasotako fakturekin (*gastuak*).

Partaideak: PFEZaren hiru hileko ordainketa zatikatuak eta PFEZaren urteko aitopena esleitutako errentarekin.

Ondasun-erkidegoa

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

ONDASUN- ERKIDEGOA

Zer da ondasun-erkidego bat?

Ondasun-erkidegoa dago gauza baten edo eskubide baten jabetza hainbat pertsonarena denean zatitu gabe. Pertsona bakoitza kuota abstraktu baten jabe erkidea da (*zati fisiko zehatz batekin parekagarria ez den ehunekoa*). Komunitateak enpresa-jarduera batera bidera ditzake bere ondasunak.

Adibidez, ahizpa batzuek jarauntsitako finka edo base-ri bat, nekazaritza-ustiategia izan daitekeena, bidera dezakete enpresa-jarduerara, edo pertsona talde batek eskuratutako lursail batzuk bidera ditzake; bi kasuetan, nekazaritzako enpresa-jarduerarako erabiliko dira horretarako eratutako ondasun-komunitatearen bidez.

ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

- Kontratu pribatua edo borondate-akordioa.
- Nekazaritza Ustiategien Erregistroan izena ematea.
- Foru Ogasunaren erroldan izena ematea → 036 eredu (erroldan alta ematea).
- Pertsona erkideek gizarte-segurantzian alta ematea.
- Izena: gehitu Ondasun Erkidegoa edo OE.

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Nortasun juridikoa:** Ez du erkideen edo partaideen nortasun juridikotik bereizitako nortasun juridikorik.
- **Erantzukizuna:** erkideen erantzukizuna mugagabea da: lehendabizi enpresaren ondarearekin erantzuten da eta, nahikoa ez bada, norberaren ondarearekin.
- **Administrazioa:** erabakiak kuoten gehiengoaren bidez hartzen dira (adib.: 1 pertsonak % 90a izatea).
- **Ordezkaritza:** akordioan ituntzen dutena.
- **Kapitala / ekarpena:** ez dago legezko gutxienezkorik.
- **Gutxieneko partaide kopurua:** bi.
- **Irabazien banaketa:** egindako ekarpenaren proportzioan (%).
- **Zuzeneko tributazioa:** PFEZ (*errentak eratxikitzea*).



Ondasun-erkidegoa

FISKALITATEA

7. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Kontsumoa zergapetzen du. Ondasun-erkidegoa BEZaren subjektu pasiboa da (*partaideak ez, orde*). Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeko baldintzak betetzen badira, EZ ditu BEZaren aitopenenak aurkeztu behar; bestela, jasanzaritako eta jasandako BEZaren likidazioa aurkeztu beharko du (*303 eta 300 ereduak*).

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia: Salmentengatik ez dute BEZa jasanarazteko, likidatzeko eta sartzeko betebeharririk. Ezin dute eskurapenetan jasandako BEZa kendu, baina beren produktuak saltzen dituztenean oroharreko konpentsazioa lortzeko eskubidea dute. Erosten duenak egin behar dio ordainagiria bere nekazari hornitzaileari. Ordainagiri horretan BEZak eragindako oroharreko konpentsazioa sartzten da, baina ezin da kendu.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanzaritako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzeko eta sartzeko (*hala badagokio*) hiruhileko aitopenenaren bitartez (*303 eredu*). Emaidza negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (*390 eredu*).

8. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Ondasun-erkidegoa zergapetu daitekeen erakunde bat da, eta ERRENTAK ERATXIKITZEKO ARAUBIDE BEREZIAREN pean tributatu behar du. Ondasun-erkidegoak ez du PFEZn tributatu, ezta sozietateen gaineko zergaren ere; partaideek gehitu behar dituzte beren PFEZ pertsonalaren aitopenean ondasun-erkidegoa ustiatzeagatik lortutako errentak.

→ Arrazoi fiskal hori dela medio, ondasun-erkidegoa figura egokitzat hartzen da jarduera hasteko edo irabazi txikiko ustiatzearako; izan ere, bestela, jauzi bat ekarriko luke sozietate txikietan sozietateen gaineko zerga-tasa gaitzen duten bazkideen errentaren eskalan (% 20 edo % 18 koop.).

Nekazaritza eta abeltzaintzarako zenbatespen erraztu berezia:

ETEKIN GARBIA = Diru-sarrerak — Gastu kengarriak — Aurreko diferentzia positiboaren % 35 = Aurretiko etekin garbia +— Jarduerari atxikitako ondare-elementuen galdu-irabazien saldo garbia.

Zuzeneko zenbatespen arrunta:

ETEKIN GARBIA = Urtean barrena lortutako diru-sarrerak — Diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak +— Ondare-aldakuntzak.

Hori guztia sozietateen gaineko zergaren arauen arabera; gainera, araei dagokienez Merkataritza Kodearekin bat datorren kontabilitatea eraman beharko da. Ez da erregistratzen.

9. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

184 eredu otsailean. Eredu horren bidez, honako hauek aitortzen dira: ekitaldi bakoitzeko partaideen identifikazio-datuak, lortutako errenten zenbatekoa (*diru-sarrerak — gastu kengarriak*), kerkarien oinarria, atxikipenen zenbatekoa eta jasandako konturako sarrerak eta negozio-zifraren zenbateko garbia.

140 eredu, otsailean, jardueraren erregistro-liburua egindako fakturekin (*diru-sarrerak*) eta jasotako fakturekin (*gastuak*).

Partaideak: PFEZaren hiruhileko ordainketa zatikatuak eta PFEZaren urteko aitopena esleitutako errentarekin.

SOZIEKATE ZIBILAREKIKO DIFERENTZIAK

Bien funtzionamendua ia berdina da, diferentzia nagusia jatorrian dago. Ondasun-erkidegoaren jatorrian, pertsona batzuek elkarrekin partekatzen duten ondasun bat dago; hala, pertsona horiek ondasun-erkidegoa eratzen dute, ondasun hori ustiatzeko edo kudeatzeko. Sozietate zibilean, berriz, pertsona batzuek ekarpena egiten dute, baterako ondasun bat sortu eta haren bidez irabaziak lortzeko.



Gizarte zibila

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

GIZARTITE ZIBILA

Zer da sozietate zibil bat?

Sozietate zibila kontratu bat da, zeinaren bidez pertsona batek edo gehiagok elkar behartzen duten dirua, ondasunak edo industria (*lana*) partekatuzera, irabaziak elkarren artean banatzeko.

Adibidez, nekazaritza-eskolako bi ikaslek (*emakumeak*) sozietate zibil bat eratu dute nekazaritza ekologikoko proiektu bati ekiteko; emakume bakoitzak kapital txiki bat, tresnak eta ekipamendua eta beren ezagutza jarri dute, eta sozietate zibilak lursail bat alokatu du jarduera bertan egin ahal izateko.

ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

- Kontratu pribatua edo borondate-akordioa.
- Nekazaritza Ustiategien Erregistroan izena ematea.
- Foru Ogasunaren erroldan izena ematea → 036 erdua (erroldan alta ematea).
- Pertsona erkideek gizarte-segurantzian alta ematea.
- Izena: gehitu Sozietate Zibila edo SZ.

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Nortasun juridikoa:** eztabaida juridikoa horri buruz; bai, baldin eta hirugarrenen aurrean sozietate gisa funtzionatzen badute, haien izenean jardunda; ez, horrela ez bada.
- **Erantzukizuna:** bazkideen erantzukizuna mugagabea da: lehendabizi enpresaren ondarearekin erantzuten da eta, nahikoa ez bada, norberaren ondarearekin.
- **Administrazioa:** eraketa-kontratuan ituntzen dena (*bakarra edo mankomunatua edo solidarioa edo proportzioan...*).
- **Ordezkaritza:** sozietate zibilaren izenean ordezkaritza gisa jarduten duen, ahala duen eta bere ahalaren edo agintearen mugen barruan jarduten duen edozein bazkide.
- **Kapitala / ekarpena:** ez dago legezko gutxienezko. Bazkide kapitalistak (*ondasunak edo dirua jartzen dute*) edo industrialak (*lana edo industria jartzen dute*) egon daitezke.
- **Gutxieneko partaide kopurua:** bi.
- **Irabazien eta galeren banaketa:** itundutakoaren arabera, itunik ez badago egindako ekarpenaren proportzioan.
- **Zuzeneko tributazioa:** PFEZ (*errentak eratxikitzea*).



Gizarte zibila

FISKALITATEA

10. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Kontsumoa zergapetzen du. Sozietate zibila BEZaren subjektu pasiboa da (*partaideak ez, ordea*). Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeko baldintzak betetzen badira, EZ ditu BEZaren aitopenak aurkeztu behar; bestela, jasanarazitako eta jasandako BEZaren likidazioa aurkeztu beharko du (*303 eta 300 ereduak*).

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia: Salmentengatik ez dute BEZa jasanarazteko, likidatzeko eta sartzeko betebeharririk. Ezin dute esku-rapenetan jasandako BEZa kendu, baina oroharreko konpentsazioa lortzeko eskubidea dute beren produktuak saltzen dituztenean. Erosten duenak egin behar dio ordainagiria bere nekazari hornitzaileari. Ordainagiri horretan BEZak eragindako oroharreko konpentsazioa sartzeko da, baina ezin da kendu.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzea eta sartzeko (*hala badagokio*) hiruhileko aitopenaren bitartez (*303 ereduak*). Eraitza negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (*390 ereduak*).

11. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Sozietate zibila zergapetu daitekeen erakunde bat da, eta ERRENTAK ERATXIKITZEKO ARAUBIDE BEREZIAREN pean tributatu behar du. Sozietate zibilak ez du PFEZn tributatzen, ezta sozietateen gaineko zergan ere; partaideek gehitu behar dituzte beren PFEZ pertsonalaren aitopenean Sozietate Zibila ustiatzeagatik lortutako errentak.

→ Arrazoi fiskal hori dela medio, sozietate zibila figura egokitzen hartzen da jarduera hasteko edo irabazi txikiko ustiatzearako; izan ere, bestela, jauzi bat ekarriko luke sozietate txikietan sozietateen gaineko zerga-tasa gainditzen duten bazkideen errentaren eskalan (% 20 edo % 18 koop.).

Nekazaritza eta abeltzaintzarako zenbatespen erraztu berezia:

ETEKIN GARBIA = Diru-sarrerak — Gastu kengarriak — Aurreko diferentzia positiboaren % 35 = Aurretiko etekin garbia +— Jarduerari atxikitako ondare-elementuen galdu-irabazien saldo garbia.

Zuzeneko zenbatespen arrunta:

ETEKIN GARBIA = Urtean barrena lortutako diru-sarrerak — Diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak +— Ondare-aldakuntzak.

Hori guztia sozietateen gaineko zergaren arauen arabera; gainera, araei dagokienez Merkataritza Kodearekin bat datorren kontabilitatea eraman beharko da. Ez da erregistratzen.

12. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

184 ereduak otsailean. Eredu horren bidez, honako hauek aitortzen dira: ekitaldi bakoitzeko partaideen identifikazio-datuak, lortutako errenten zenbatekoa (*diru-sarrerak — gastu kengarriak*), kenkariaren oinarria, atxikipenen zenbatekoa eta jasandako konturako sarrerak eta negozio-zifraren zenbateko garbia.

140 ereduak, otsailean, jardueraren erregistro-liburua egindako fakturekin (*diru-sarrerak*) eta jasotako fakturekin (*gastuak*).

Partaideak: PFEZaren hiruhileko ordainketa zatikatuak eta PFEZaren urteko aitopena esleitutako errentarekin

ONDASUN-ERKIDEGOAREKIKO DIFERENTZIAK

Bien funtzionamendua ia berdina da, diferentzia nagusia jatorrian dago. Ondasun-erkidegoaren jatorrian, pertsona batzuek elkarrekin partekatzen duten ondasun bat dago; hala, pertsona horiek ondasun-erkidegoa eratzen dute, ondasun hori ustiatzeko edo kudeatzeko. Sozietate zibilean, berriz, pertsona batzuek ekarpena egiten dute, baterako ondasun bat sortu eta haren bidez irabaziak lortzeko.



Eraldaketarako nekazaritza-sozietatea

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

ERALDAKETARAKO
NEKAZARITZA-
SOZINETATEA

Zer da eraldaketarako nekazaritza-sozietate bat?

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak helburu ekonomikoa eta soziala duten sozietate zibilak dira, nekazaritzako, abeltzaintzako edo basoko produktuak ekoizteko, eraldatzeko eta merkaturatzeko, landa-ingurunean hobekuntzak egiteko, nekazaritza sustatzeko eta garatzeko eta helburu hori lortzeko balio duten zerbitzu komunak emateko.

Nekazaritzako kooperatiba-sozietate bihurtu daitezke.

ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

- Sorrera-akta, bazkideen zerrenda, itundutako estatutuak eta helburuen memoria.
- EAEko ENSen Erregistroan izena ematea.
- Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan izena ematea.
- Foru Ogasunaren erroldan izena ematea → 036 erdua (erroldan alta ematea). IFK eskatzea.
- Bazkideek gizarte-segurantzan alta ematea.
- Izena: gehitu Eraldaketarako Nekazaritza Sozietatea edo ENS.

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Bazkideen (= sozietate zibila)** arteko kontratu baten bidez eratzen da.
- **Nortasun juridikoa:** Bai.
- **Erantzukizuna:** ENSrena eta, subsidiarioki, bazkideena modu mankomunatuan eta mugagabean.
- **Administrazioa:** Zuzendaritza-batzordea (10 bazkide baino gehiagoko ENS) edo pertsona bakarreko presidentetza. Batzar Nagusia.
- **Ordezkaritza:** Administrazioa / ahaldunak.
- **Gutxieneko kapital soziala:** ez dago gutxieneko zenbatekorik; % 25eko gutxieneko ordainketa sozietatea eratzeko. Diru-ekarpena edo ondasunak.
- **Gutxieneko bazkide kopurua:** hiru.
- **Irabazien eta galeren banaketa:** egindako ekarpenaren proportzioan.
- **Zuzeneko tributazioa:** Sozietateen gaineko zerga.
- **Liburuak artezteak:** bazkide-erregistroa, batzarraren aktak, gobernu-batzordearen edo -organoaren aktak eta nahitaezko kontabilitate-liburuak.



Eraldaketarako nekazaritza-sozietatea



FISKALITATEA → ONURAK ERAKUNDE BABESTUAK EDO BEREZIKI BABESTUAK IZATEAGATIK

ENSak Babestutzat edo Bereziki Babestutzat hartzen dira fiskalki lurralde historiko bakoitzean ENSak arautzen dituzten foru-arauetan. Sozietate horien tratamendu fiskalari esker, salbuespenak, hobariak eta tratamendu espezifikoak dituzte zenbait tribututan, hala nola Sozietateen gaineko Zergan, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta PFEZn.

KONTABILITATEA eraman behar dute merkataritza-kodearen arabera, eta urtero erregistratu behar dute kooperatiben erregistroan. Horrek gastu erantsi bat dakar, kontulari profesional bat eduki behar delako eta ahalegin gehigarria egin behar delako kudeaketan.

13. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Araubide orokorra aplikatzen da.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzea eta sartzea (*hala badagokio*) hiru hileko aitopenenaren bitartez (*303 eredua*). Emaizta negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (*390 eredua*).

14. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietate horien zerga-oinarri orokorrari (*diru-sarrerak — gastuak+ — izakinen aldakuntza*) % 20ko karga-tasa dagokio; enpresen tasa orokorra, ordea, % 24 da. Gainera, tamaina txikiko ENSei % 18 aplikatzen zaie, baldintza jakin batzuk betez gero (*2.000.000tik beherako aktiboa eta eragiketa-bolumena, 10 pertsonatik beherako plantilla, besteak beste*).

→ Babes fiskal berezi hau da figura hau aukeratzeko abantaila bat. Karga-tasa, sozietateekin alderatuta, chuneko 6 murriztuta izanda, beste abantaila batzuen artean, aurrezpen esanguratsua lortzen da, eta aurrezpen hori ustiategiaren beste premia batzuetara bidera daiteke.

15. ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

Babestuta dauden ENSak OEZtik eta EJDtik libre daude, eraketa-eragiketetan, kapital-zabalkuntzetan, bat-egite eta zatiketetan, maileguren eta kredituen eraketetan eta ezerezteetan eta ondasun-eta eskubide-eskuratze batzuetan.

16. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

Kuoten % 95eko hobaria, nahiz eta jarduera ekonomikoaren gaineko zerga tributaziotik libre dagoen 2.000.000 €-tik beherako negozio-bolumena duten erakunde sozial guztientzat.

17. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

- Apirila: kontabilitate-liburuak erregistroan aurkeztea.
- Uztaila: sozietateen gaineko zerga (*200 eredua*) eta kontu-gordailua erregistroan aurkeztea.

Kooperatiba-sozietate txikia

KOOPEL
SOZIEETATE
TXIKIA

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

Zer da kooperatiba-sozietate txiki bat?

Kooperatiba-sozietatea, oro har, pertsonen sozietate bat da, enpresa-jarduera bat egiten duena eta erabakiak demokratikoki hartzen dituena (*bazkide bat: boto bat*). Kooperatiba-sozietate txikia lehen mailako kooperatiba bat da, lan elkartu edo komunitate-ustiategi motakoa, eta araubide juridiko espezifikoak du EAEko Kooperatibei buruzko Legearen barruan, tamaina txikiagoa duelako.

Kooperatiba-mugimenduak EAEko ekonomian garrantzi handia duenez, figura erakargarria da, babes publikoa baitu kooperatiba eratzeko izapideetan, babes berezia jasotzen baitu zerga-gaietan eta aintzatetsitako balio kooperatiboak baititu (*demokrazia, berdintasuna, autoerantzukizuna eta abar*).



ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

- Eskritura Publikoa → Notarioria.
- EAEko Kooperatiben Erregistroan izena ematea.
- Nekazaritza Ustiategien Erregistroan izena ematea.
- Foru Ogasunaren erroldan izena ematea → 036 erdua (erroldan alta ematea). IFK eskatzea.
- Bazkideek gizarte-segurantzan alta ematea (erregimen orokorra edo autonomoak aukeratu).
- Izena: gehitu Kooperatiba Sozietatea edo KS.

Hasierako kostua: Notarioria, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (jarritako ondasunen % 1) eta izapidetze-kostuak (gestoria / aholkularitza).

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Batzar eratzaillearen eratzera da.** Batzar horrek estatutu sozialak edo funtzionamendurako arauak eta bazkideek eskrituran gehitu nahi dituzten itunak idatziko ditu. Eusko Jaurlaritzak kooperatibak eratzera laguntzen du.
- **Nortasun juridikoa:** Bai.
- **Erantzukizuna:** kooperatibarena. Kooperatibistek ez dute beren ondare pertsonalarekin erantzuten, jarritako kapitala soilik jartzen dute arriskuan.
- **Administrazioa:** aukeran daude administrazio bakarra, mankomunatu edo solidarioa edo Artekazartza-kontseilua.
- **Ordezkaritza:** Administrazioa / ahaldunak.
- **Gutxieneko kapital soziala:** 3.000 €.
- **Gutxieneko bazkide kopurua:** bi.
- **Gehieneko bazkide kopurua:** hamar.
- **Irabazien eta galeren banaketa:** ituntzen dena (*erreserbak, itzulketa, nahitaezko funtsak...*). Langile bazkideek edo laneko bazkideek ordainsari bat jasotzen dute beren lanarengatik.
- **Zuzeneko tributazioa:** Sozietateen gaineko zerga.

Kooperatiba-sozietate txikia

FISKALITATEA → ONURAK ERAKUNDE BABESTUAK EDO BEREZIKI BABESTUAK IZATEAGATIK

Kooperatibak Babestutzat edo Bereziki Babestutzat hartzen dira fiskalki lurralde historiko bakoitzean ENSak arautzen dituzten foru-arauetan. Kooperatiba horien tratamendu fiskalari esker, salbuespenak, hobariak eta tratamendu espezifikoak dituzte zenbait tribututan, hala nola Sozietateen gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

KONTABILITATEA eraman behar dute merkataritza-kodearen arabera, eta urtero erregistratu behar dute kooperatiben erregistroan. Horrek gastu erantsi bat dakar, kontulari profesional bat eduki behar delako eta ahalegin gehigarria egin behar delako kudeaketan.



18. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Araubide orokorra aplikatzen da.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzeko eta sartzea (*hala bada-gokio*) hiruhileko aitopenen bitartez (*303 eredua*). Emaidza negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (*390 eredua*).

19. SOZIEATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietate horien zerga-oinarri orokorrari (*diru-sarrerak — gastuak+ — izakinen aldakuntza*) % 20ko karga-tasa dagokio; enpresen tasa orokorra, ordea, % 24 da. Gainera, tamaina txikiko kooperatibei % 18 aplikatzen zaie, baldintza jakin batzuk betez gero (*2.000.000tik beherako aktiboa eta eragiketa-bolumena, 10 pertsonatik beherako plantilla, besteak beste*).

Bereziki babestuta dauden kooperatibek kuota likido orokorraren % 50eko kenkaria izango dute.

→ Babes fiskal berezi hori da figura hau aukeratzeko abantaila nagusietako bat. Karga-tasa, merkataritza-sozietateekin alderatuta, chuneko 6 murriztuta izanda eta kuotaren ordainketan % 50eko kenkaria izanda —beste abantaila batzuen artean—, aurrezpen esanguratsua lortzen da, eta aurrezpen hori ustiategiaren beste premia batzuetara bidera daiteke.

20. ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

Babestuta dauden kooperatibak OEZtik eta EJDtik libre daude eraketa-eragiketetan, kapital-zabalkuntzetan, bat-egite eta zatiketetan, maileguren eta kredituen eraketetan eta ezerezteetan eta ondasun-eta eskubide-eskuratze batzuetan.

21. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Kuotaren % 95eko hobaria kooperatiba babestuen kasuan.

22. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

- Apirila: kontabilitate-liburuak erregistroan aurkeztea.
- Uztaila: sozietateen gaineko zerga (*200 eredua*) eta kontu-gordailua erregistroan aurkeztea.

Erantzukizun mugatuko lan-sozietatea

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

ERANTZUKIZUN
MUGATUKO
LAN-SOZIEETATEA

Zer da erantzukizun mugatuko lan-sozietate bat?

Lan-sozietateak, laburbilduz, sozietate mugatuak edo anonimoak dira, zeinetan kapital sozial gehiena sozietate horietan modu pertsonalean eta zuzenean, lan-harreman mugagabearen arabera, zerbitzuak egiten dituzten langileen jabetzakoa den; bazkide bakar batek ere ezin du kapitalaren heren bat baino gehiago eduki jabetzan; kontratatutako langileek ezin dute bazkideek baino ordu gehiago lan egin urtean.

Lan-sozietateetan, funtzionamendua partaidetzakoa izatea nahi da, enpleguaren kalitatearen alde eta bazkideekiko loturaren alde. Partaidetzak eta akzioak ezin dira nahierara eskualdatu eta zerga-araubide pribilegiatua dute.

Lan-sozietate mugatuak sortu berriak edo bihurtu berriak izan daitezke, esaterako enpresa bat krisian badago eta ixtear badago eta bertako plantillak jabetzan hartzen badu, langabezia kapitalizatuta eta bestelako finantza-baliabide babestu batzuk erabilia.

ERAKETA ETA HASIERAKO IZAPIDEAK

→ **Eskritura Publikoa → Notariotza (eraketa; lan-sozietate bihurtzen bada, estatutuak aldatu egin behar dira)**

→ **EAEko Lan Sozietateen Erregistroan eta Merkataritza Erregistroan izena ematea**

→ **Nekazaritza Ustiategien Erregistroan izena ematea**

→ **Foru Ogasunaren erroldan izena ematea → 036 erdua (erroldan alta ematea). IFK eskatzea.**

→ **Bazkideek gizarte-segurantzan alta ematea**

→ **Izena: gehitu Lan Sozietate Mugatua edo LSM**

Hasierako kostua: Notariotza, egintza juridiko dokumentuen gaineko zerga (*jarritako kapitalaren % 1*) eta izapidetze-kostuak (*kudeatzailletza / aholkularitza*).

FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

- **Batzar eratzailean eratzten da.** Batzar horrek estatutu sozialak edo funtzionamendurako arauak eta bazkideek eskrituran gehitu nahi dituzten itunak idatziko ditu.
- **Nortasun juridikoa:** Bai.
- **Erantzukizuna:** mugatua.
- **Administrazioa:** Batzordea edo administratzaile indibiduala.
- **Ordezkaritza:** Administrazioa / ahaldunak.
- **Gutxieneko kapital soziala:** 3.000 €.
- **Gutxieneko bazkide kopurua:** bi; kasu horretan, 36 hilabeteren buruan beste pertsona batek sartu behar du.
- **Irabazien eta galeren banaketa:** irabaziaren zati bat erreserbara bideratu behar da nahitaez.
- **Zuzeneko tributazioa:** Sozietateen gaineko zerga.



Erantzukizun mugatuko lan-sozietatea



FISKALITATEA

KONTABILITATEA eraman behar dute merkataritza-kodearen arabera eta urtero erregistratu behar dute merkataritza-erregistroan. Horrek gastu erantsi bat dakar, kontulari profesional bat eduki behar delako eta ahalegin gehigarria egin behar delako kudeaketan.

1. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Araubide orokorra aplikatzen da.

Araubide orokorra: Bezeroei jasanarazitako BEZaren eta hornitzaileek jasandako BEZaren arteko diferentzia kalkulatzea eta sartzea (hala badagokio) hiru hileko aitopeneraren bitartez (303 *eredua*). Emaizta negatiboa: berdintzeko uzten da, itzulketa eska daitekeen urteko azken likidaziora arte (390 *eredua*).

2. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietate hauen zerga-oinarri orokorrari (*diru-sarrerak — gastuak+ — izakinen aldakuntza*) % 24ko karga-tasa dagokio. Dena den, tamaina txikiko LSMei % 20 aplikatzen zaie, baldintza jakin batzuk betez gero (2.000.000tik beherako aktiboa eta eragiketa-bolumena, 10 pertsonatik beherako plantilla, besteak beste).

LSMek ez dituzten sozietate-eragiketak ordaindu behar, eratzeko, zabaltzeko edo murrizteko prozesuetan.

3. ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

Lan-sozietatetzat hartzen diren sozietateek kostu bidezko ondare-eskualdatzeen modalitatean sortutako kuoten 100eko 99ko hoberia izango dute ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren barruan, zuzenbidean onartutako edozein bitarteko erabiliz lan-sozietateko bazkide langile gehienen enpresaren ondasun eta eskubideak erosteagatik.

4. INFORMATZEKO BETEBEHARRAK

- Apirila: kontabilitate-liburuak erregistroan aurkeztea.
- Uztaila: sozietateen gaineko zerga (200 *eredua*) eta kontu-gordailua erregistroan aurkeztea.

Laburpena

TITULARTASUN FISIKOKO EDO ELKARTEETAKO LEGEZKO FIGURAK

LABURPENENA

Titulartasun forma	Eraketa	Partaide kopurua	Kapitala	Erantzukizuna	Ordezkaritza	Tributazioa	Etekinen banaketa
Banakakoa	Nek. Ust. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Titularra	Borondatezkoa	Mugagabea	Titularra	PFEZ	Titularra
Titulartasun partekatuko erakundea	Kontratua/akordioa Nek. Ust. Araub. Tit. Part. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Bi	Borondatezkoa	Mugagabea	Solidarioa xedapen-egintzak izan ezik (mankomunatua)	PFEZ (errentak partaideei eratzikitzea)	Partaide bakoitzak % 50
Ondasun-erkidegoa	Kontratua/akordioa Nek. Ust. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Gutxienez bi	Borondatezkoa	Mugagabea	Ituntzen dutena	PFEZ (errentak partaideei eratzikitzea)	Ekarpenarekiko proportzionala
Sozietate zibila	Kontratua/akordioa Nek. Ust. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Gutxienez bi	Borondatezkoa	Mugagabea	Ituntzen dutena	PFEZ (errentak partaideei eratzikitzea) Sozietateen gaineko zerga nortasun juridikoa badute	Ekarpenarekiko proportzionala
Eraldaketarako nekazaritza-sozietatea	Sorrera-akta eta estatutuak Eae-ko ens araubidea Nek. Ust. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Gutxienez hiru	Ez dago gutxienezkorik	ENS eta subsidiarioki partaideak modu mankomunatuan	Zuzendaritza-batzordea eta presidentetza (Batzarreko hautetsiak)	Sozietateen gaineko zerga	Ekarpenarekiko proportzionala
Kooperatiba txikia	Eskritura publikoa (notariotza) Eae-ko koop. Araub. Nek. Ust. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Gutxienez bi Gehienez hamar	Gutxienez 3.000 €	Ekarpenera mugatua	Batzarreko hautetsia: Batzarra:pertsona bakarrekoa / pertsona anitzekoa (solidarioa edo mankomunatua) / kide anitzekoa artezkaritza-kontseilua	Sozietateen gaineko zerga	Ituntzen dena
Erantzukizun mugatuko lan-sozietatea	Eskritura publikoa (notariotza) Eae-ko lan soz. Araub. Nek. Ust. Araub. Alta erroldan 036 Alta gizarte-segurantzan	Gutxienez bi	Gutxienez 3.000 €	Ekarpenera mugatua	Administratzailea banakakoa edo kontseilua	Sozietateen gaineko zerga	Ituntzen dena Erreserba berezia

06

Titulartasun partekatuko
nekazaritza-erakundearen
figuraren azterketa

Titulartasun partekatuko nekazaritza-erakundearen figuraren azterketa

Bikote-harremanari lotutako figura

Titulartasun partekatuko erakundeak aukera ematen die emakumeei bikotean kudeatutako ustiatzean egiten duten lana ofizialtzeko eta beren legezko titulartasuna lortzeko, beren bikotekidearekin batera erabaki ahal izateko berari dagokion oro. Harreman mota horrekin soilik lotuta dagoen figura bat da. Horrek ez du esan nahi bikote batek figura horri soilik heldu diezaiokkeenik, baizik eta bikote-harremanerako espezifiko delako. Bikoteak heterosexualak eta homosexualak izan daitezke. EAEko Emakume Nekazarien Estatutuan aipatzen den titulartasun partekatua emakumeari ematen dio protagonismoa: «*Estatutu honen ondorioetarako, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiatzeak hauek dira: emakume baten eta ezkontidearen edo bikotekidearen artean eratzen direnak*». Berdintasun-printzipioa sustatzen duen EAEko arau bat denez, protagonismo hori ematen die emakumeei, esaten duenaren arabera, estatutuaren ondorioetarako. Horregatik ez du alde batera uzten gizonez osatutako bikote batek TPE bat eratzea estatuko legean babestuta. Lege hori EAEko estatutuarekin batera dago, eta, era berean, EAEko arauak estatuko legera jotzen du behin baino gehiagotan lege horren arauketa aitortuz.

Titulartasun partekatuari buruzko estatuko legeak ezarritako konpentsazio ekonomikoa

Titulartasun partekatuari buruzko Legeak konpentsazio ekonomikoa bat ezartzen du bikotekidea titular den ustiatzean erregulariki lan egin duten eta lan horregatik kobratu ez duten eta TPEa eratu ez duten pertsonentzat. Konpentsazio ekonomikoa hori ustiatzearen eskualdatzen denean eta/edo bikote-harremanaren desegiten denean eska daiteke. Zailtasun handiena konpentsazio hori kuantifikatzea izango da; alderdiak ez bada ados jartzen, epaitegi zibilak kuantifikatu beharko du ustiatzearen balioa, titular ez zenak inbertitutako benetako denbora erreala eta jarduerak merkatuan duen balioespina kontuan hartuta. Figura horrek balio konpentsatzailea izateaz gain, disuasio-helburua du titulartasuna partekatu nahi ez duten titularrentzat.

Baina, zer gertatzen da emakumeak titulartasuna lortzen ez badu eta ustiatzearen eskualdatzen ez bada eta bikotea desegiten ez bada? Kasu horretan, emakumeak titulartasuna lortzea legez eskatzen ez badu, ezkutuko ekonomian jarraituko du bitzita osoan.

Zer gertatzen da titular den bikotekideak TPE bat eratzeari eragozpenak jartzen badizkio?

Figura aztertu denean, figuraren boluntariorotasuna edo derrigortasuna aztertu da. Titulartasun partekatuari buruzko estatuko Legearen hitzurrean adierazten denez, legeak «*borondatezko figura juridiko berri bat eskaintzen du*». Hala ere, badirudi EAEko legeek —bai Nekazaritza eta Elikagai-gaigintza Politikako Legeak, bai Emakume Nekazarien Estatutuak— mandatu hau ezartzen dutela: «*titulartasun partekatuaen figura hartuko du*» eta «*legezko figuretako bati heldu beharko diote*». Baina gorago azaldu dugunez, badirudi mandatu horiek ez betetzeak ez dakarrela ondorio garbirik, legeetan bertan azaltzen denaren arabera, behintzat.

Gaia polemikoa eta delikatua da, zeren argi baitago ordaindu eta kotizatu gabeko edozein lan mota sala daitekeela erakundeetan, esate baterako, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzan, salaketa bat jarriz, eta titulartasuna jurisdikzio zibilean erreklama daitekeela. Baina horretarako legezko egintzak hasi behar dira titulartasun partekatuari eragozpenak jartzen dizkion bikotekidearen aurka.



Ustiategiaren ordezkaritza, titulartasun-formen arabera

Titulartasun partekatuko erakundeak

Solidarioa, ustiategia antolatzeke, bese-terentzeko edo kargatzeko diren egintzak izan ezik; kasu horretan, mankomunatua izango baita (*Nekazaritza-ustiategien titulartasun partekatuari buruzko 35/2011 Legearen 4.2 artikulua eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legearen 12.1 artikulua*).

Ondasun- erkidegoak

Eratzeko akordioan alderdiek ituntzen dutena (*banakakoa, solidarioa edo mankomunatua*).

Sozietate zibila

Eratzeko akordioan alderdiek ituntzen dutena (*banakakoa, solidarioa edo mankomunatua*).

Tamaina batetik gorako erakundeetan ohikoa da ordezkari eta administrazio solidarioak aukeratzea ohiko kudeaketak egiteko (*pertsona bat edo bestea*) eta, aldiz, mankomunatua aukeratzea baliabide ekonomiko handiagoa eskatzen duten eragiketak egiteko. Horrela, ohiko kudeaketak arindu egiten dira, eta berme handiagoa ematen zaie erantzukizun ekonomiko handiagoa eskatzen duten eragiketari.

Konparazio horretan ikusten dugu **TPEak arautzen dituen araudiak ez duela banakako ordezkariarako aukera ematen; beraz, TPEa osatzen duten emakumeak beren ustiategiaren ordezkari izan daitezke**, TPEak titulartasun-forma hori duenean edozein motatako hirugarrenen aurrean, maila guztietako nekazaritza-organoak eta elkarteak barne.

Gai arantzatsua: etekinak % 50ean banatzea

Aurkako jarrera eragin dezakeen afere-tako bat da bi kideek ustiategian dedikazio berdina izan ez eta irabaziak % 50ean banatu behar izatea. Irabazpideko erregimenean ezkondata daudenen kasuan ez luke horrela izan behar, baina galga izan daiteke, bikotea ezkondata ez dagoenean edo ondasunak banantzeko erregimenean ezkondata dagoenean.

Konparazio- abantailak

TPEakez dueraketa-kosturik: alderdiek ez dute ekarpenik egin behar, ez du notario-tza-gasturik, ezta erregistro-gasturik ere; kudeaketak azpikontratatzeko dakarren kostua soilik, baldin eta azpikontratatzeko bada.

Titulartasun partekatuko erakundeak arin, erraz eta merke eratzten diren ondasun-erkidegoaren eta sozietate zibilaren titulartasun-formen aldean duen abantaila nagusia da **TPEa LEHENTASUNEZKO NEKAZARITZA-USTIATEGITZAT** har daitekeela. Kalifikazio horrek onura fiskalak eta sektoreko laguntzak eta dirulaguntzak lortzeko lehentasuna izatea dakartza berekin.

Emakume Nekazarien Estatutuaren 15. artikulua ezartzen du ezen emakumeen titulartasuneko ustiategiei lehentasuna emango zaiela laguntzak eta dirulaguntzak lortzeko.

Titulartasuna emakume batena izan daiteke, titulartasun partekatuko erakunde batena edo pertsona juridiko batena, partaidetzen gutxienez % 50 emakumeen esku badaude, sozietate-kideak bi izanez gero.

Ondasun-erkidegoek ez dute nortasun juridikorik; beraz, ezin dute lortu lehen-tasunezkoak izateko kalifikazio hori. Sozietate zibilek ere ez dute nortasun juridikorik kasu gehienetan, baina sozietate zibilean ondasun higiezinak edo eskubide errealak jartzen direnean, lortzen dute nortasun hori, eta kasu horretan, eskritura publikoan eratu behar da.

Gai hori Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Orokorrari buruzko 203/2011 Dekretuaren «Lehentasunezko nekazaritzako ustiategiak» izeneko II. kapituluan dago jasota. Artikulu horretan deskribatzen da zer titulartasun mota hartzen diren lehentasunezkotzat: ondasun-erkidegoak ez daude, eta sozietate zibilei dagokienez, eskritura publikoan eratuta egon behar dutela argitzen du. Horrekin, desgertu egiten da eraketa-kostua txikiagoa izatearen abantaila.

Abantaila batzuen ondorioz, hala nola zerga-mailan bereziki babestuta dagoen erakundea izatea eta laguntzei, dirulaguntzei eta bestelako sustapen-neurriei dagokienez lehentasuna izatea, bikote batek kudeatutako nekazaritza-ustiategirako figura onuragarriena da.

Nola susta daiteke TPEaren figura erabiltzea?

- TPEaz baliatzeko, ezagutu eta ulertu egin behar da; horregatik, emakume nekazarien artean eman behar da ezagutzera, baina baita emakume nekazariei aholku emango dieten eta izapideak egingo dizkieten administrazioko kudeatzaileen eta teknikarien artean ere.
- Egon daitezkeen bide guztiak erabiliz egin beharko litzateke hedapena:
- Esku hartzen duten erakundeen web-orriak.
- Nekazaritzako Eskualde Bulegoetako teknikariak.
- Nekazaritzaren alorreko sindikatuak.
- Nekazaritzaren alorreko elkarteak eta kooperatibak.
- Nekazaritza-eskolak.
- Udalak.





Ondorioak

TP figura proposamen juridiko bat da, konponbidea ematekoa arazo zehatz honi: emakumeek familiako nekazaritza-ustiattegietan egiten duten lana gutxietsia eta ikusezina izatea, eta ezkutuko ekonomiara zokoratuta egotea, bikote-harremanaren barnean.

Egoera horrek kalteak ekarri dizkie emakumeei, bai maila indibidualean (*batez ere, kotizatutako ordainsariak dakartzan eskubide guztiak ukatu zaizkielako*), bai maila sozialean, ez dutelako izan modurik sektorea arautzeko erabakiak hartzen dituzten instantzietan parte hartze-ko; horren ondorioz, ezin izan dituzte azaldu laneko premia zehatzak eta, beraz, ez dute aukerarik konponbideak bilatzeko garaian eragina izateko. Sektore horretan, historikoki, emakumezko erreferenterik izan ez denez, oraindik ere irauten dute genero-aurreiritziek, emakumeen ekarpena gizartean aintzatesteko oztopagarri.

Hala eta guztiz ere, pentsatzekoa da gaur egungo nekazaritza-ustiategi guztiak ez datozela diagnostiko horrekin bat. TPEa gure ingurunean zenbateraino ezarrita dagoen argitzeko, jakin beharko genuke ustiatiegiek gaur egun zer errealitate sozial duten eta emakumeek beste mota bateko ustiattegietan zer posizio duten. TPEa figura egokia da emakumeek titulartasuna lor dezaten bikotekideak kudeatzen duen nekazaritza-ustiategiaren barruan; hala, argigarria izango litzateke jakitea emakumeek zer posizio duten bikotekidearekin batera kudeatzen ez diren ustiategietan baita bikoteek kudeatzen dituztenetan ere, baldin eta jardueran sartzeko modua eredu tradizionalaz bestelakoa bada —hots, senarraren titulartasunpeko nekazaritza-ustiategian lanean hasten den emakumearen eredu tradizionalaz bestelakoa—.

Beraz, berdintasun-plan batek diagnostiko bat egiten duen bezala eta diagnostiko hori egin ondoren jarduketa-plan bat ezartzen den bezala, eta plan horren jarraipena, ebaluazioa eta berrikuspene egiten diren bezala, landa-ingurune-berdintasun-politika aktiboek ere, aldian-aldian, aztergai hartu beharko lukete xede duten errealitate soziala.

Lehenengo ondorio gisa, berresten dugu gure ustez TPEa tresna egokia dela emakume nekazari-ustiategi-entitateen titulartasunean duten posizioa bultzatzeko, bikotekideekiko berdintasuna lortzeko. Baina tresna horren eraginkortasuna balioesteko, hainbat alderdi ezagutu behar dira: zer-nolakoa den ustiategi-entitatearen egoera gaur egun, zer posizio duten emakumeek ustiategi horietan, nola sartu diren jardueran, norekin diharduten lan horretan, zer adin-tartekoak diren, zer jatorri duten, zer prestakuntza eta abar. Horrela, jakingo dugu ea emakume nekazari horiek TPEaren figurara jo lezaketen gaur egun, eta, bestalde, neurriak ezarri ahal izan dira figura hori areago hedatzeko eta sustatzeko.

Atera dugun bigarren ondorioa da TPEaren aukera hori behar bezala zabaldu behar dela hari etekina atera diezaioketen kolektiboaren artean. Horretarako, kolektiboari aholku eman diezaioketen teknikariak prestatu behar dira, aukera horrek beste titulartasun-figura batzuekin alderatuta dituen abantaila buruz informatu ahal izateko; horrez gain, informazio-kanpaina eraginkorrak eta zuzenekoak programatu behar dira, aukera hori izapidetzeari buruzko eskuliburu argi eta erraz bat landuta.

Azkenik, Legearen arabera etekinak % 50ean banatzea derrigorrezkoa denez, komenigarria izango litzateke aztertzea ea alderdi hori oztopagarri izan daitekeen TPEa eratzeko; hala baldin bada, inguruabar horri buruz ituna egiteko aukera aztertzea.

TPEa tresna egokia dela emakume nekazari-ustiategi-entitateen titulartasunean duten posizioa bultzatzeko, bikotekideekiko berdintasuna lortzeko.



EMAKUME
NEKAZARIEN
ESTATUTUA



araba álava
foru aldundia diputación foral

